



CSCAE

Consejo Superior de los
Colegios de Arquitectos de España

Manifestua

Arkitekturaren 2019ko Mundu Eguna

“Arkitektura... guztiontzako etxebizitza”

Aurten, Arkitekturaren Mundu Egunean —astelehena, urriak 7—, Arkitektoen Nazioarteko Batasunak (UIA) eta Espainiako Arkitektoen Elkargoetako Kontseilu Gorenak (CSCAE) arreta jarriko dute etxebizitzak *guztiontzat* adierazten duen erronka erabakigarrian.

Planeta osoan, mila milioi lagun baino gehiago bizi dira modu prekarioan, bai eta hiriko zerbitzurik gabe ere. Halaber, milioi bat gizon eta emakume inguru ihesi doaz eta lekualdatzeko beharra dute, gatazkak eta hondamenak direla-eta, eta ez dute babes iraunkorrik.

Espainian, etengabeko kontzentrazioa dago hiri handietan, eta ez dago prezio egokia duen bizitegi-parkerik. Horrenbestez, etxebizitzaren prezioa gora egiten ari da. Hori dela-eta, gazteek eta familiek ezin dute beren beharrei era duinean eta egokian erantzungo dien etxebizitzarik erosi, eta, bitartean, landa-munduan despoblazioa gertatzen ari da.

Gaur egun bizi ditugun aldaketa azkarrek, klima-larrialdiari aurre egiteko premiak — etxebizitzetako energia-kontsumoa murriztuz— eta horiek bizitzeko nahiz lan egiteko gaur egungo moduetara eta gero eta zaharkituagoa den biztanleriaren eskaeretara egokitzeko beharrak erakusten dute etxebizitza-parke bat behar dugula, bai eta hori modu orokorrean eta premiaz eraldatu behar dugula ere.

Arkitektook lan handia egiten dugu erronka horiei modu kolektiboan erantzuteko. Konponbide arkitektoniko eraginkorrak, berritzaileak eta zeharkakoak ematen ditugu etxebizitzaren prezio ordainezinari aurre egiteko, bai eta eskaera eta eskaintza epe luzean eta ertainean berriro orekatuko dituzten hiriko eta lurraldeko estrategiak ere.

Despoblazioaren aurka, hainbat eskalatako hiri-plangintza eta plangintza estrategikoak proposatzen ditugu, bai eta hiriak finkatzeko eta berritzeko ekintzak ere, edozein udalerritan. Horrez gainera, eraikitako etxebizitza-parkea berriro eta egokitu dadin bultzatzen eta laguntzen dugu, parke



CSCAE

Consejo Superior de los
Colegios de Arquitectos de España

horren kalitatea bermatzeko eta gaur egungo nahiz etorkizuneko bizitegi-premiei erantzuteko; premia horiek oso ezberdinak dira gaur egun, etxebizitza-parkea eraiki zen unearen aldean.

Helburu hori lortzeko, Espainiako arkitektook modu kolektiboan egiten dugu lan, eta CSCAEk zenbait ekimen sustatzen ditu arkitektoen elkargoetan, gure egunoroko bizitzan bereziki, herritar guztien ongizatearekiko konpromisoarekin, betiere. Izan ere, uste irmoa dugu edozeinek etxebizitza duina eta egokia —kalitatezko ingurune eraiki eta ingurumenari lotutako batean integratutakoa— erosi ahal izateko lan egiteak zentzua ematen diola gure lanari eta lanbideari.